

2009/08/05

Trenaren Museoak 1925eko ibilgailu bat gehitu du bildumara

Trenaren Euskal Museoak handitu egin du bere ibilgailu historikoen bilduma. Orain dela egun gutxi, 1925ean eraikitako eta Elecnor enpresak lagatako dresina ekarri du Museora. Dresina ibilgailu automotore arina da, eta trenbideko azpiegiturak eraberritzeko lanetan garraiatu beharreko langileak eta materiala garraiatzeko erabili izan dute.

Dresina Berliet enpresak eraikitakoa da, eta Galizian, Vigo Baionarekin eta Gondomarrekin lotzen zituen Vigoko tranbia elektrifikatzeko lanetan erabili zuten.

Galizian erabili ondoren, 1948ean Compañía de Ferrocarriles Vascongados izeneko enpresak erosi zuen, eta ibilgailua dresina gisa berreraiki zuten, energiaren elikadura sistema mantentzeko lanetarako. Gero, aurrez aipatutako enpresa Feve barruan sartu zen, eta dresina Bilbo-Donostia artean erabili zuten 1972tik 1979ra bitartean.

Ondoren, ibilgailua Eusko Trenbideak-eki saldu zioten eta bertako lanak egiteko erabili zuten 1990. urtera arte. Urte horretan bertan Elecnorrek erosi zuen.

Ibilgailuari azken eraldaketak

Elecnorrek hainbat eraldaketa egin zion ibilgailuari: gidaritzako kabina berria, langileak igotzeko plataforma eta laguntza lanetarako pluma bat jarri zizkion. Aldaketa horiek eta gero, iaz arte lanean jardun dute dresinarekin; Euskal Trenbide Sarearen, Feveren eta Bilboko Metroaren sareko mantentze lanetarako erabili dute.

75 ibilgailu historiko baino gehiago

Azpeitian dagoen EuskoTrenen Trenaren Euskal Museoak Europa osoko tren bildumarik hoberenetakoa du, Museoko arduradunek azaldu dutenez.

Museoko bilduma, mota guztietako 75 ibilgailuk baino gehiagok osatzen dute: lurrin lokomotoreek, tranbiek, trolebusek, automotoreek, bagoiek eta suhiltzaileen kamioi batek, besteak beste.

Azpeitian dagoen Trenaren Euskal Museoa abuztuan asteartetik igandera bitartean zabalik egongo da. Asteartetik larunbatera bitartean goiz eta arratsalde zabalduko dute, 10:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 19:30era.

Igandeetan, berriz, goizez bakarrik irekiko dute 10:30etik 14:00etara bitartean. Astelehenetan itxita egongo da.

Hil honetan, lurrin trenean ibilaldiak egiteko aukera ere eskainiko dute Museoan. Ibilaldiak, Azpeitiko trenaren geltokitik Lasaoko tren geltokira arteko joan-etorriak dira. Asteartetik ostiralera, Allan automotore dieselean egingo dituzte ibilaldiak.

Museoko ibilgailuak eta bertan dauden beste hainbat erakusketa ikusteko sarrera 2,50 euro kostatzen da pertsonako. Treneko ibilbidea egiteko txartela hartuz gero, berriz, museoa ikusi eta trenean ibiltzea 5 euro kostatzen da.